

18/06/2018

KULTURA

Oroitzapenei gutuna

Erein argitaletzeko Bioleta Sailean argitaratu du Maddi Etxeberria andoaindar idazleak bere lehen eleberria, «Zein usain dute oroitzapenek?», gutuna baliabide hartuta egindako gogoeta sorta.

ARIANE KAMIO | DONOSTIA

IMPRIMIR

ENVIAR



Hogei urterekin argitaratu du Maddi Etxeberriak (Andoain, 1998) bere lehenengo eleberria. Bioleta sailean katalogatu du Erein argitaletxeak "Zein usain dute oroitzapenek?" lana. «Mugako saila», Iñaki Aldekoa editorearen aburuz, «gazteentzako literatura baita, baina aldi berean heldutasunetik gertuago daudenentzat egindako lanez osatua». Atal urria, edo konplikatu, kasik enkarguz egindako lanez osatua. Ramon Saizarbitoriaren "Kandinskyren tradizioa"-rekin abiarazia, Philip Pullmanen itzulpenak ere baditu –"Tximeleta tatuajea", "Zubi hautsia"–, baita Mariasun Landa –"Krokodiloa ohe azpian", "Azken bala da"–, Fermin Etxegoien –"Ur pekariak"– eta Karlos Linazasoreoren –"Mendekuaren graziaz"– lanak ere. Uzta hori zabaltzeko kaleratu du orain Ereinek Etxeberriaren lana.

Gutun bidezko egitura hertsian osatutako nobelan, hainbat narrazio gai lantzen ditu. Bi planotan, guztiak. Protagonista, batetik; Britainia Handian bizi den 25 urteko neska, Gaia izenekoa. Eta, bestetik, honek Euskal Herrian utzitako iragana, lagun min bat, maitasuna, gaixotasuna eta heriotza hausnarketarako gai hartuta.

Babesleku

Haurra zenetik izan du harremana Etxeberriak literaturarekin. Bai irakurriz, bai idatziz, gordeleku bihurtu izan zaio. «Askotan kontatu izan dizkiot gauza gehiago koaderno bati inguruko lagunei baino», azaldu du. Hainbat literatur lehiaketatan saritua, Martin Ugalde ipuin

AZKENAK



naiz: naiz:
@naiz_info

Descubren 115 tallas de marfil de colmillos de elefante y morsa en una vivienda de Gipuzkoa
naiz.eus/eu/actualidad/...

Descubren 115 tallas de marfi...

Una casa repleta de tallas de m...
naiz.eus

5s

naiz: Retweeted



Aritz Intxusta
@AritzIntxusta

Quitando el polvo al techo del Navarra Arena. El mastodonte de 60 millones que heredamos de la megalomanía de @upn_navarra Se abre en septiembre



HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

PUBLICIDAD

lehiaketa, Aiztondoko gutun lehiaketa edo Urruznotarrak Gehituz, kasurako; azken hori mugarri izan zuen bere ibilbide literarioan. «Nire adineko idazle eta literaturzale amorratuak aurkitu nituen».

“Zuzeu” eta “Izanaren itzalak” atarrietan hasi zen testu eta gogoetak argitaratzen eta idazteko gero eta behar handiagoa sentitu zuen. «Ez naiz gogoratzen nola hasi nintzen nobela hau idazten. Beharra neukan». Eskutitz forman eta lehenengo pertsonan osatu du egitura, Gaia protagonista nagusi hartuta –«zerrenda bat dut egunen batean seme-alabak baditut, haien izenekin. Eta Gaia da lehenengoa. Bera bada nire lehenengo umea»–. Idazkera inpulsiboa, gehiegi planifikatu gabea izan da “Zein usain dute oroitzapenek?” eleberriaren lan moldean. «Idatzitakoan, bi aukera nituen. Tiraderan gordetzea edo argitaratzen saiatzea».

Ereineko atea jo eta azkar zabaldu zioten. «Lana jasotzerakoan ez dakigu nolakoa den. Kalitatetzat dudan horren inguruan egin ohi dut irakurketa eta hemen badago sendotasun bat. Aintzat hartzeko moduko lana zen. Gutunak ondo uztartuta daude bata bestearen atzetik eta tramaren eraikuntza ondo osatuta dago. Lan askorik ez dugu izan edizioa egitean», egin du oharra Aldekoak.

